

36ko gerra zela eta, 30.000 ume Euskal Herritik kanpo eroan zituzten. 'Habana' ontzian 4.000 ume abiatu ziren Ingalaterrara bidean, tartean, Keltse Altuna Markina-Xemeingo bizilaguna.

# Gerra umeak Ingalaterran

NEREA BEDIAUNETA

**G**errak, hildakoez eta zaurituez gain, errefuxiatu asko ere uzten ditu. Goseak eta premiak eraginda, 1937ko maiatzaren 21ean, 4.000 ume euskaldun Santurtzitik Southampton (Ingalaterra) ingurura abiatu ziren *Habana* izeneko ontzian, hiru astako egonaldia egitera. Egonaldi hura hilabeteetara luzatu zen, eta batzuen kasuan, bizi guztirako.

Atzo, Carmen Kilner-ek, errefuxiatuen artean andereño modura joan zenaren alabak, eta Keltse Altunak, ume haietako batek, garai haietako bizipenen berri eman zieten Bekobenta ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleei.

## Gauza gutxi amari buruz

Carmen Kilner-ek ama Ingalaterrara joan aurreko biziari buruz ezer gutxi zekien, izan ere, amakez zuen bizitza hura gogoratu ere egin nahi. Bera hil ostean, Kilner-ek bere gauzen artean dokumentu pila bat aurkitu zituen, eta aurreko bizitzari buruz ikertzen hasi zen.

Ana Maria Gonzalez Garate donostiarraren. Andereñoa izateaz gain, politikagintzan aritu zela ere argitu zuen alaba Carmen Kilner-ek.

Gerra hastean, oster, mairuen tropek Donostia hartu eta Portugaletara alde egin zuten.

1937an, berriz, Kondor legioak Gernika eta inguruak bonbardatu zituenean, Eusko Jaurlaritza, kausa politikoa zela eta, umeak kanpora ebakuatzen hasi zen. 30.000 ume herrialde desberdinetan sakabanatu zituzten; 4.000, Ingalaterrako hegoaldera bidali zituzten *Habana* itsasontzian.

Ontziak 800 lagunentzako tokia bazuen ere, 3.890 ume, 80 irakasle, 120 laguntzaile, hamabost apaiz,

sendagile bi eta bost erizain abiatu ziren Southampton aldera.

Ia hiru eguneko «bidaia luzea eta txarra» egin zuten. Kilner-en ama, esate baterako, handik aurrera ez zen itsasontzian ibili.

## Alderdi politikoen arabera

Lehen egunak North Stoneham-eko kanpamentuan egin zituzten, eta han, zortzi laguneko kanpin dendan egon ziren. Tokia, gainera, guneetan banatu zuten, eta horiek alderdi politikoen arabera beste gune batzuetan.

Kanpamentuan aste batzuk egin ostean, Ingalaterran sakabanatzen hasi ziren umeak, eta horiekin batera, irakasleak ere bai.

## Hamasei hilabete

Keltse Altuna eta bere bi ahiztek ere antzerako bizipenak izan zituzten Ingalaterran.

Altuna eta bere bi ahiztak hiru asterako joan ziren, baina hamasei hilabete egin zituzten.

Altuna familia Bilboko Korreo kalean bizi zen, eta bonba bat jausi ostean, etxea suntsitu eta kalean geratu ziren. Hain egoera tamalgarririan, gurasoek ezin izan zituzten anai-arreba guztiak mantendu, eta hiru ahizta txikienak errefuxiatu modura bidali zituzten.

Altunak garai hartan 8 urte zituen, eta 5 eta 14 urte bitarteko 120 neska gaz batera egon zen White irlan. Nahiz eta familiaren hutsunea eduki zuen, oroitzapen politik gordetzen ditu. «Egunero klaseak genituen, eta ahal genuen bakoitzean abestu eta dantzatu egiten genuen moja irlandarrekin».

## Batzuek ezin bueltatu

1938an, berriz, hamar urte zituela, Francok umeak bueltatzeko eskaria egin zuen, eta Altunatarak



Keltse Altuna, ezkerrean, eta Carmen Kilner, eskuman, hitzaldiaren ostean. N. BEDIAUNETA

suntsitutako Bilbora bueltatu ziren; Bigarren Mundu Gerra ere heltzear zen.

Hala eta guztiz ere, 400 bat lagunek Ingalaterran geratzea aukeratu zuten. Ez zuten nora bueltatu; kasu askotan, gurasoak hilda, preso edo desagertuta zituzten eta.

## Oroitzapenak WIGHT

Txikia zela utzi zuen atzean Keltse Altunak White irla, baina 50eko hamarkadan han egondako lagun talde bat irlara bueltatu zen. «Inguruko egunkariak abesbatza euskalduna zetorrela adierazi zuten. Izan ere, irlan geundela egun osoa kantatzen pasatzen genuen, eta kuru bat ginela pentsatzen zuten», gaineratu zuen Altunak.

Horrez gain, Ingalaterran geratutakoek, garai haiek gogoratzeko asmotan, urtero, maiatzaren 21aren inguruko asteburuan batu egiten dira.



Habana itsasontziak 4.000 pertsona inguru eroan zituen Ingalaterrara.